LARRAULGO UDALA
(GIPUZKOA)

2024ko AZAROAREN 25ean, LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA

2024ko azaroaren 25ean, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, eguerdiko 12:00 orduetan, Maite Arana Perez Alkatearen Lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.

ZINEGOTZIAK: Maria Pilar Cortajarena Sorarrain
Jose Antonio Rodriguez Rodriguez
Vicente Garcia Momblona
Jose Agustin Arrieta Eguiguren
Maria Isabel Vaquero Montero.

BERE EZIN ETORRIA AZALTZEN DUTE: Ander Iturri Torrea

Bertan dago, egintzaz fede emateko Ane Gomez Urteaga Idazkari-kontuhartzailea.

…//…

Alkate-lehendakari andreak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

1. **Ondoren adierazten diren Udalbatzarretako aktak onestu, hala badagokio/ Aprobación, si procede de las siguientes actas Plenarias:**
   - **2024ko urriaren 25ean egindako ohiko bilkura/ Sesión ordinaria de fecha 25 de octubre de 2024.**
2. **Alkatetza ebazpenen berri ematea/ Dación de cuenta de los decretos de Alcaldía.**
3. **Fakturak eta ordainketak/ Pagos y facturas.**
4. **Larraulgo Plan Orokorraren hasierako onespena: fakturaren onespena eta ordainketa burutzeko agindua ematea ./ Aprobación inicial del Plan General de ordenación de Larraul: aprobación de la factura y ordenar el pago de la misma.**
5. **2023ko maiatzaren 16an onartutako Larraulgo udala eta Katilutxulo elkartearen arteko hitzarmenaren aldaketa./ Modificación del convenio suscrito entre el Ayuntamiento de Larraul y Katilutxulo Elkartea, aprobado el 16 de mayo de 2023.**
6. **Diru-laguntzaren plan estrategikoaren aldaketa puntuala./Aprobación de la modificación puntual del plan estratégico de subvenciones.**
7. **Danaren ondorioz, Valentziak jasan dituen hondamendiei aurre egiteko diru-laguntzaren onespena. / Aprobación de una ayuda económica a Valencia para hacer frente a los daños ocasionados por la Dana.**
8. **Beste batzuk/Otros.**
9. **Erregu, galderak eta mozioak/Mociones, ruegos y preguntas.**

…//…

LARRAULGO UDALA
(GIPUZKOA)

LEHENENGO PUNTUA
ONDOREN ADIERAZTEN DIREN UDALBATZARRETAKO AKTAK ONESTU, HALA BADAGOKIO

- 2024 urteko urriaren 2ean egindako Udalbatzaren ohiko bilkurako akta. Irakurri ondoren udalbatzak, aho batez, onesten du.

BIGARRENGO PUNTUA
ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

Ondoren, Udaleko Idazkari-Kontuhartzaileak adierazten du 2024 urteko 49/2024tik 52/2024ra Lehendakari Ebazpenak eman direla. Bertaratuak jakinaren gainean geratu direlarik.

HIRUGARRENGO PUNTUA
FAKTURAK ETA ORDAINKETAK

Alkate-Lehendakari andreak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:

URKAMENDI MOTOR	33,28
EKILUZ	67,91
NORTEGAS	64,54
NORTEGAS	10,60
ALKAIN	91,86
ESTANISLAO JAUREGUI	98,10
R. ZABALA	317,63
BERRI LANTEGIA	594,16
TELEFONICA	10,41
BELARMENDI	1.939,63
KIROLZER	53,30
MAQUELSA	37,90
SETALDE	264,75
MONTTE	937,08
SETALDE	269,23
TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA	1.448,96
SECURITAS DIRECT	55,04
SECURITAS DIRECT	54,39
MIRARI ERRANDONEA	1.266,27
MIRARI ERRANDONEA	1.266,27
ZU ETA BIOK	2.056,64
ULAHI	468,12
DIONISIO ORMAZABAL	88,50
IPARFIBRA	278,13

EBA ERKIZIA	1.681,94
JOXAN ALTUNA	251,10
OSCAR GALINDO	133,10
TOLOSAKO HILTEGIA	186,00
ALKAIN	50,00
ALKAIN	39,29
EKILUZ	180,71
EKILUZ	242,76
EKILUZ	28,53
EKILUZ	62,75
EKILUZ	72,39
BAXURKA PENTSUAK	172,50
GAZTEZULO	35,00
MIRARI ERRANDOSORO	4,80
MIRARI ERRANDOSORO	9,20
TEK LARRAUL	110,11
AMONARRIZ ITURGINTZA	93,65
INFOBIBLIOTECAS	339,68
MAITE ARANA	185,09

Udalbatza honek, **aho batez** hurrengoa,

ERABAKITZEN DU

BAKARRA.- Aipaturiko fakturak, denera **15.651,30** Eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.

LAUGARREN PUNTUA
LARRAULGO PLAN OROKORRAREN HASIERAKO ONESPENA: FAKTURAREN ONESPENA ETA ORDAINKETA BURUTZEKO AGINDUA EMATEA

Ikusita, Larraulgo Hiri antolamenduko Plan Orokorra eta ingurumen ebaluazio estrategikoaren dokumentuak idazteko esleipena Hirigrama Koop. Elk. Txikia merkataritza-enpresari egin zitzaiola 2023ko urriaren 10ean.

Ikusita, 2024ko azaroan, Hirigrama Koop. Elk. Txikia merkataritza-enpresak Larraulgo udalari aurkeztu dizkiola, Larraulgo Hiri antolamenduko Plan Orokorra: hasierako onespenerako dokumentua eta ingurumen ebaluazio estrategikoaren dokumentua.

Ikusita, Hirigrama Koop. Elk. Txikia merkataritza-enpresak egindako lanen faktura aurkeztu diola, Larraulgo udalari.

Gaia azterturik, bertaratuek, aho batez, ondorengoa,

ERABAKITZEN DUTE:

LEHENA: Hirigrama Koop. Elk. Txikia merkataritza-enpresak aurkezturiko 08 faktura onartu eta bere ordainketa egin dadin agintzea 2024 urteko aurrekontuetako 642.151.00.01 kontu sailaren kontura. Fakturaren zenbatekoa 49.005,00 euro delarik.

BIGARRENA: 49.005,00 eurotako gastua onartu.

BOSTGARRENGO PUNTUA
2023KO MAIATZAREN 16AN ONARTUTAKO LARRAULGO UDALA ETA KATILUTXULO ELKARTEAREN ARTEKO HITZARMENAREN ALDAKETA

Ikusita, 2023ko maiatzaren 16an egindako ohiko udalbatzarrean Larraulgo udala eta katilutxulo elkartearen arteko hitzarmena onartu zela.

Aipaturiko hitzarmenean akats bat antzeman da, non, adierazten den, elkartean dagoen galdara udaletxearena dela eta hori ez da zuzena, beraz, akatsa zuzentzeko eskaera egin dio Katilutxulo Elkarteak, Larraulgo udalari.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: 2023ko maiatzaren 16an sinatu zen Katilutxulo elkartearen eta Larraulgo udalaren arteko hitzarmenean ondorengo akats zuzenketa egitea:

Larraulgo udalaren izenean agertzen den elkarteko galdara, Katilutxulo elkartearen izenean agertu behar da. Beraz akats zuzenketa hau, sinatutako hitzarmenari erantsi behar zaio.

BIGARRENA: Erabaki honen berri, Katilutxulo Elkarteari ematea.

SEIGARREN PUNTUA
DIRU-LAGUNTZAREN PLAN ESTRATEGIKOAREN ALDAKETA PUNTUALA

Ikusirik Larraulgo udalak, 2023ko urtarrilaren 26an eginiko udalbatzarrean, Larraulgo udaleko 2023-2025 Diru-laguntzen Plan Estrategikoari hasierako onespena eman ziola.

Ikusita, espedientea jendaurrean egon zela hogeita hamar eguneko epean, inolako alegaziorik aurkeztu ez zenik. Hori dela eta, Toki jardunbidearen oinarrien apirilaren 2ko 7/1985 legearen 49 artikuluak xedatzen duenaren arabera, artean, behin behineko zen akordioa behin betikoa bihurtu zen, eta hori 2023ko apirilaren 18ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 8.1 artikuluak oinarrizko izaera du; hori dela eta, diru-laguntzak eman nahi dituzten udal guztiek onartu beharra daukate beren Diru-laguntzen Plan Estrategikoa.

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra beste urrats bat da sistema Ekonomikoaren hobekuntza eta arrazionalizazioan.

Legearen printzipioetako bat da gardentasunarena; printzipio horrek, Legean artikulatzen diren tresna anitzekin batera, eraginkortasun- eta eragingarritasun mailen gehikuntza bat dakar berekin, modu zuzenean ekarri ere, diru-laguntzen gastu publikoaren gestioan.

Alde horretatik esan behar dena da merkatuari eragin liezaioketen distortsioak eta interferentziak kentzeko modua egongo dela diru-laguntzen inguruko informazio gehiago edukiz gero eta, horrezaz gain, Administrazio Publiko guztietako jardueren koherentzia eta osagarritasuna erraztu eta mota guztietako teilakatzeak galaraziko lirateke.

Eraginkortasuna hobetzeko, legerian aginduta dago egin dadila Diru-laguntzen Plan Estrategiko bat, urte anitzeko izaera duena, diru-laguntzak edo Udalbatzak egiten dituen lankidetza hitzarmenak sortu aurretik.

Diru-laguntzen plan estrategikoa aurreikuspen bat besterik ez dela kontuan harturik, aldaketak izan litezke; nolanahi ere, aldaketa horiek egokitu beharra daukate Legera, Ordenantza espezifikora, une bakoitzean dagoen errealitate sozialera eta, batik bat, dagokion ekitaldiko aurrekontuetara.

Ikusita, une honetan, aldaketa batzuk sartu nahi direla indarrean dagoen dirulaguntzen plan estrategikoan.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA.- 2023-2025 ekitaldietarako dirulaguntzen Plan Estrategikoaren 2. aldaketa onartzea, 1. lerro estrategikoan, gizarte gaiak, honako programa hau sartuz:

1. lerro estrategikoa: gizarte gaiak	
Aurrekontu aplikazioa (2024)	1 0000 481.230.20.01
Helburua, hartzailea	Caritas, Danaren ondorioz Valentziak jasandako hondamendiei aurre egiteko laguntza
Diru-laguntza mota	Zuzena-izenduna eta puntuala
Zenbatekoa (2024)	500,00 €

BIGARRENA.- Erabaki hau jendaurrean jartzea 30 egun balioduneko epean, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta web orrian argitaratuz, nahi duenak espedientea aztertu eta bere kasuan, alegazioak edo erreklamazioak aurkez ditzan.

Epe hori igarota alegaziorik edo erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, onartutako Plan Estrategikoaren 2. aldaketa behin betiko onartutzat joko da.

ZAZPIGARREN PUNTUA
DANAREN ONDORIOZ, VALENTZIAK JASAN DITUEN HONDAMENDIEI AURRE EGITEKO DIRU-LAGUNTZAREN ONESPENA

Ikusirik Danaren ondorioz, Valentziak jasan dituen hondamendiak.

Ikusita, Larraulgo udalak, Valentziako herriari laguntza ekonomikoa eman nahi diola, aipaturiko hondamendi horiei aurre egiteko.

Ikusita, Larraulgo udalak, aurreko puntuan, diru-laguntzen plan estrategikoaren 2. Aldaketa onartu duela.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENGOA.- CARITAS elkarteari 500 eurotako diru-laguntza bat ematea, puntuala, Valentziak Danaren ondorioza jasandako hondamendiei aurre egiten laguntzeko.

BIGARRENA.- 500,00 eurotako gastua onestea.

ZORTZIGARREN PUNTUA
BESTE BATZUK

Ez dira aurkezten.

BEDERATZIGARREN PUNTUA
ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK

Ez dira aurkezten.

Beste gairik ez dagoenez, arratsaldeko 12:15 orduak direnean Alkate andreak bilera amaitutzat ematen du, nik, behin-behineko Idazkaria naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.